

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Gobernuak InfoNavarra 012 Internetera zabalduko du

Gaur egun dagoen telefono bidezko eta aurrez aurreko arretaz gain, gizarte sareak eta posta elektronikoa gehitu dira

Viernes, 16 de septiembre de 2011

Nafarroako Gobernuak [InfoNavarra 012](#) espazio berrietara zabalduko du, gizarte sareetara, posta elektronikora eta aurrez aurreko kontsultara. Horixe azaldu dute gaur goizeko prentsurrekoan Roberto Jiménez lehen presidenteorde eta Lehendakaritzako, Administrazio Publikoetako eta Barneko kontseilariak eta Guzmán Garmendia Partaidetza eta Teknologia Berrien zuzendari nagusiak.

Mintzaldian, Jiménez presidenteordeak esan du "Partaidetza gardentasuna, parte hartzea eta elkarrizketa direla" eta "asmoa ahalik hiritar gehienetara iristea denez, Gobernuak komunikazio kanalak indartu direla".

Duela urtebete [Tuteran](#), eta geroago [Iruñean](#), InfoNavarra 012ren lehen bulegoa ireki ondoren, Nafarroako Gobernuak gobierno@navarra.es helbidea sortu du bide horretatik herritarren beharrezko erantzuteko.

Gizarte sareei dagokionez, Nafarroako Gobernuak @navarra profila sortuko du Twitterren InfoNavarra 012ren bidez Foru Erkidegoari buruzko edozein galderari erantzuteko (eguraldia, jarduera edo ekitaldi bereziak, zinemako ikuskizunak edo errepideen egoera, besteak beste). Facebooken ere Foru Erkidegoari buruzko profila egongo da ([Facebook.com/GobiernoDeNavarra](https://www.facebook.com/GobiernoDeNavarra)), eta, horren bidez, InfoNavarra 012k zalantzak argitu, kezak eta iradokizunak jasoko ditu eta erabiltzaileekin komunikatuko da. Tuentin, 14 eta 24 urte arteko gazteentzako gunean, [Tuenti.com/InfoNavarra](https://www.tuenti.com/InfoNavarra) orrialdea izango du. Ikus-entzunezko irudiari dagokionez, Youtuben ere [YouTube.com/InfoNavarra](https://www.youtube.com/InfoNavarra) izeneko profila sortuko da.

Guzmán Garmendia Partaidetza eta Teknologia Berrien zuzendari nagusiak adierazi duenez, "sortu diren profil guztiak daude martxan gaur goizetik hasita".

Horietan guztietan erabiltzen diren hizkuntzak euskara eta gaztelania dira, eta, aurreikusi denaren arabera, kanal horietan laster ingelesez ere parte hartu ahal izango da. Zerbitzu berri horiez Iruñeko eta Tuterako InoNavarra 012ko langileak arduratuko dira, langileak gehitzeko beharrik izan gabe, izan ere, orain arteko baliabideez baliatuta lan egingo da.